

## AZALPEN-OHARRA: ZALDIBARKO ZABORTEGIAREN INGURUKO UREN JARRAIPENARAKO LAGINEN EMAITZA-BILDUMA AZALTZEKO. 2020ko Martxoaren 23a.

### SARRERA

Zaldibareko zabortegearen luiziaren ondoren inguruko uren jarraipena egiteko Uren Zaintza Planean zehazten da astero txosten bat egingo dela, eta txosten horretan jasoko direla Zaintza Plana osatzen duten sareko laginketen deskribapena, emaitzen eta ondorioen interpretazioa, eta eskuragarri dauden emaitza analitikoak Uraren Euskal Agentziaren webgunean argitaratuko direla otsailaren 24tik aurrera.

Ohar honen bidez, laginen analisisen emaitzak dituen artxiboaren egitura eta edukiak azaltzen dira.

### EMAITZA-BILDUMA

Emitza analitikoak *excel* fitxategi batean daude (20200323\_RESULTADOS\_AGUAS VZALDIBAR.xlsx).

Fitxategiaren izenean, haren eguneratze-data idatzi da, eta data horretara arte Uraren Euskal Agentzian eskuragarri zeuden emaitzak jasotzen ditu.

Artxiboak hiru orri ditu.

- **PUNTUAK:** laginketa-estazioen identifikazioa jasotzen du, honako eremu hauekin:
  - **Laginketa-puntuen kodea**
  - **Izena\_puntua.** Laginketa-puntuen izena.
  - **UTMXERS89.** UTM x koordenatua ETRS89 erreferentzia-sisteman
  - **UTMYETRS89.** UTM y koordenatua eta ETRS89 erreferentzia-sisteman.
  - **Mota\_puntua:** Ibaia edo lixibatua isurtzea.

Erantsitako mapan laginketa-puntuen kokapena aurki daiteke.

Puntuen zerrendan DEG068 estazioa ere sartu da, Eibar ibaian beheara dagoen Ego ibaian, Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masen egoeraren jarraipen sareari dagokiona.

- **EMAITZAK:** fitxategia eguneratzen den egunean heldu diren emaitza analitikoak jasotzen ditu, honako eremu hauekin:
  - Laginketa-puntuaren kodea.
  - **Laginketa-data.** Lagina hartu den data.
  - **Laginketa-ordua.** Lagina hartzeko ordua (tokiko ordua).
  - **Parametroa.** Aztertutako parametroa.
  - **< = >.** Operadorea. "<" ikurrak aztertutako parametroaren kuantifikazio-muga baino balio txikiagoa adierazten du.
  - **Balioa.** Parametrorako lortutako balioa, adierazitako puntu eta egunean.

- **Unitatea.** Emaitza emateko erabilitako unitateak.
- **Erreferentzia.** Parametro desberdinetan aplika daitezkeen muga-balioak adierazten dira (kalitate-arauak eta antzeko erreferentziak), baita dagokion araudia ere.

Ibaitan kokatutako kontrol-puntuen kasuan, substantzia eta parametro desberdinei aplikatu beharreko muga-balioak errege-dekretu hauetan daude:

- *817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, Azaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitateko arauak ezartzen dituena*<sup>1</sup>. Honako hauei aplika dakizkiekeen muga-balioak barne hartzen ditu:
  - Oxigenazio- eta mantenugai-baldintzak (II. eranskina). Eranskinak parametro horietarako egoera onetik moderatura aldatzeko balioak zehazten ditu, ibaiaren tipologiaren arabera. Ego ibaiari eta haren ibaiadarrei R-T22 ibaiaren tipologia aplikatzen zaie (Kantauri eta Atlantikoko kareharrizko ibaiak).
  - Lehentasunezko substantzietarako eta bestelako kutsatzaileetarako ingurumen-kalitateko arauak (IV. eranskina).
  - Lehentasunezko substantzietarako ingurumen-kalitateko arauak (V. eranskina).
- *1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen plan hidrologikoen berrikuspena onartzen duena*<sup>2</sup>. I. eranskinean, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiko plan hidrologikoaren xedapen arauemaileei buruzkoan, 8. eranskina dago, isurketen ibaian behera ingurumen-helburuak betetzeko parametro desberdinen erreferentzia-balioekin.

Zabortegeko lixibiatuei dagozkien kontrol-puntuen kasuan, aplikatutako erreferentzia *Gipuzkoako Ur Partzuergoaren kolektorerako Isurketa Arautzeko Erregelamendua*<sup>3</sup> da.

Emaitzen taula egituratzeko, beraz, errenkada bakoitzean parametro baten emaitza analitikoak dago, laginketa-puntu eta data jakin batean. Balioak, hasieran, laginketa-puntuaren/dataren/parametroaren arabera ordenatuta daude.

Emaitzak nahi izanez gero ordenatu edo iragazi daitezke, eta taula dinamikoan edo beste tresna edo kontsulta batzuen bidez erabili. Era berean, 2020ko urtarrilaren 22az geroztik Eibarko uretan beherako Ego ibaian kokatutako DEG068 estazioan lortutako emaitzak sartu dira, Estatuko Jarraipen Sareari dagozkionak.

<sup>1</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2015-9806>

<sup>2</sup> [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-439](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-439)

<sup>3</sup> <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2012/08/01/c1207505.pdf>

- **ERREFERENTZIA-GAINDITZEA:** aplikatu beharreko erreferentziak gainditu direla detektatu den laginketa-puntuak eta parametroak jasotzen ditu, honako eremu hauekin:
  - Laginketa-puntuaren **kodea**.
  - **Tipo\_punto**. Ibaia edo lixibatua isurtzea.
  - **Parametroa**. Aztertutako parametroa.
  - **Eskura dauden erregistroen kopurua**. Laginketa-puntu bakoitzean adierazitako parametroaren heldu diren analisi-emaitzen kopurua adierazten du.
  - **Erregistro kopurua > kuantifikazioaren muga**. Emaitzak kuantifikazio-mugaren gainetik dituzten analitika erabilgarrien kopurua adierazten du.
  - **Erregistro kopurua > erreferentzia**. Aplikatu beharreko erreferentziaren gainetik dauden emaitzak dituzten analitika erabilgarrien kopurua adierazten du.
  - **Gehieneko balioa**. Laginketa-puntu bakoitzean parametrotik lortutako gehieneko balioa adierazten du.
  - **Unitatea**. Emaitza ematen duten unitateak.
  - **Erreferentzia**. Aplikatu beharreko muga-balioak adierazten dira (kalitate-arauak eta antzeko erreferentziak), baita dagokion araudia ere.

